PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA

2026KO FOOD 4 FUTURE AZOKAKO EUSKADI BASQUE COUNTRY STANDA DISEINATU, MUNTATU ETA DESMUNTATZEKO ZERBITZUAK KONTRATATZEKO

1. SARRERA

Aurtengo maiatzaren 27tik 28era elikaduraren teknologia- eta berrikuntza-arloko munduko hiriburua izango da Euskadi, Food 4 Future (F4F)- Expo Foodtceh azokaren hirugarren edizioa egingo baita Bilboko BECen. Azken edizioak arrakasta handia izan zuen, 10.000 lagun baino gehiago bildu baitzituen, eta horren ondorioz F4F - Expo Foodtech erreferentziazko foroa da gaur egun, industriatik eta industriarako diseinatua, jasangarritasunez hazten jarraitzeko erronketarako irtenbide teknologikoak aztertu eta aurkitzeko.

Seigarren edizio honetan protagonista izango dira, besteak beste, automatizazioaren teknologiak, robotika, adimen artifiziala, Digital Twin edo zibersegurtasuna. Harakintzako, esnekintzako, arrantzako, okintzako, prestatutako produktuetako, snacketako, kontserbetako eta edarietako enpresa nagusietako erosketen arduradunek, lantegiko buruek eta ekoizpeneko zuzendariek teknologia horiek ekoizpena hazteko nola ezarri ikusi ahal izango dute, eta dituzten helburuetarako bazkide teknologiko egokiena aurkitu ere bai.

Elikagaien industriako ekoizpen-kateari teknologiak egiten dion onura zabala da; hasi egungo gastuen hazkundeari edo inflazioari kaudimen handiagoz aurre egitetik edo kontsumitzaileei berme handiagoak eskaintzeko produktuen trazabilitate-irtenbide digitalizatuak izatetik eta jasangarritasuneko eta ekonomia zirkularreko estrategiak sustatzera artekoak. Hori dela eta, sektoreko enpresa asko ari dira neurri horiek hartzeko urratsak egiten eta elikagaien eta edarien industrian adimen artifizialaren erabilera 2027ra arte % 45,7 haziko dela aurreikusten da.

Aurten ere Euskadi ezinbesteko hitzordua izango da foodtech sektorearentzat eta bi egunez mundu osoko profesionalei erakutsiko dizkie elikagaien industriaren segmentu guztiak eraldatzen ari diren azken berrikuntzak eta irtenbide teknologikoak. 250 enpresa baino gehiago izango ditugu erakusketan robotikako eta automatizazioko azken irtenbideak aurkezten; elikagaien industriako segmentuetarako prozesatzeko eta ontziratzeko makinak ere aurkeztuko dizkigute, baita elikagaien segurtasun- eta zientzia-alorreko berrikuntzak ere.

2. KONTRATUAREN XEDEA

Agiri honen xedea da enpresa adjudikaziodunak egin beharreko lanak kontratatzea, Eusko Jaurlaritzak, Hazi Fundazioak, Elikak eta Neikerrek batera parte har dezaten Food 4 Future azokan. Zehatz esateko:

- Azokarako behar diren azpiegiturak / standak diseinatu eta sortzea, eskatutako baldintzen arabera.
- Azokarako behar diren azpiegiturak / standak eraikitzea-egitea.
- Euskadi-Basque Country standa eta horko elementuak garraiatu, muntatu, mantendu eta desmuntatzea.

Adjudikaziodunak egiazko metro koadroak zein diren azoka hasi baino lehenago jakingo du, guneak esleitzen direnean.

I. ERANSKINEAN daude **gaur egun ditugun planoak. Lizitazio honetarako honako azoka honen diseinua aurkeztu beharko da:**

- Food 4 Future, BEC, apirilaren 27-28.

Standa dekoratu, eraiki, muntatu eta desmuntatzeko proiektuak azokako araudia bete beharko du, erakundearen zerbitzu teknikoen onespena jaso beharko du eta bertako segurtasun-arduradunen kontrola ere bai.

Standaren diseinuaz gain, eskaintza proposatzen duen enpresak standa egiteko plana eta kronograma ere aurkeztu beharko ditu, zedarririk garrantzitsuenak jasota; esaterako, zerbitzuak eskatzeko epeak, grafikoak inprimatzeko datak, etab.

2.1.- Jarraian daude zehaztuta standaren gune desberdinak.

a) **Eragileen arteko bilerak egiteko gunea.**
b) **Erakusketarako gunea, agritech eta/edo foodtech-ekin proposamenak aurkezteko.**
c) **Biltegia: materiala gordetzeko gunea, hozkailua eta harraska ere gune horretan egongo dira.**

3. ESPEDIENTEKO AGIRIAK

Agiri honek 2 eranskin ditu:

- I. ERANSKINA: Standaren planoa.
- II. ERANSKINA: Euskadi Basque Country marka erabiltzeko eskuliburua.

4. MEMORIA KONTZEPTUALA:

4.1 – Euskadi Basque Country standaren xedeak

Standaren xede **nagusia merkataritzakoa** da, FoodTech eta Agritech arloetan Euskadi aurreko postuetan jartzen duen ekitaldia baita, elikagaien ekosistema egituratuarekin eta sektoreko erronka estrategikoetarako irtenbide berritzaileak garatzen dituena; horren guztiaren ondorioz, nazioarteko eragileekin lehendik dituen lankidetza eta gaitasunak sustatzen ditu, elikagaien sektorea eraldatzeko modu jasangarri, seguru, osasungarri eta berezian.

Inbertsioak eskuratu nahi ditu, jarduera ekonomikoa sortuz eta Euskadiren eta Euskadi Basque Country markaren nazioarteko proiekzioa eta kokapena haziz. Era berean, hornitzaileen, inbertsoreen, enpresen, balizko bezeroen eta berritu nahi duen negozio ororen topagune ere izan nahi du.

Gainera, **izaera mediatiko-promozionala** du, beste asmoetako bat komunikabideen, prentsa espezializatuaren, iritzi-liderren eta publiko espezializatuaren arreta eskuratzea baita.

4.2 – Espazioaren kontzeptua

Standaren diseinuak eta banaketak arreta berezia eskainiko die bisitarien parte-hartzea erakarriko duten guneak eta ingurua izateari.

Gune erabat irekiak nahi dira, **eraikuntza-kargarik ez dutenak**.

Aldi berean, stand deigarria eta modernoa nahi da.

5. STANDAREN IRUDIA ETA DISEINU OROKORRA

5.1 – Standaren itxura orokorra:

Standaren dekorazioak honako hauetarako beharrezko elementuak izan behar ditu:

- **Egungo** irudia izan behar du, bisitariarentzako **erakargarria** izan behar da, **goxoa** eta inguruarekiko **bereizia**.
- **Euskadi-Basque Country kontzeptua berehala identifikatu** behar da, **Euskadiko elikakateari lotuta**.
- **Stand irekia, arina, elegante eta freskoa** izan behar da, eraikuntzarekin gainkargatu gabea.

- **Standak sartzera gonbidatu behar du** eta bisitari profesionalari standeko eragileekin zuzeneko harremana eskaini behar dio. Mezu honen antzeko zerbait eman nahiko genuke: zertan lagundu zaitzaket? Eta mezua modu batera edo bestera standaren komunikazioan jasota egon beharko da.

- Standa bisualki berehala identifikatu behar da arrazoizko distantzia batetik.

Erakusgai dauden irudien, argiteriaren, tamainaren eta banaketaren arabera, bisitariari **mezu hauek helarazi behar zaizkio Euskadik agritech eta foodtech alorretan eskaintzen dituen onurei buruz.**

5.2 – Irudiko eta diseinuko elementuen ezaugarriak:

Aurkeztutako proposamenek honako alderdi hauek bete beharko dituzte standeko irudiari eta diseinuari buruz:

- Standaren altuera eta ikusgarritasuna: *rigging*a erabiltzea ez da ezinbestekoa, baina proposamenak sabai bat izan beharko du, azoka bakoitzak baimentzen duen gehieneko altuerakoa.

- Standeko mezua: argia eta zehatza.

- Standaren originaltasuna

- Standaren azaleraren gehieneko aprobetxamendua.

- Kalitatezko materialak.

- Argiztapen-sistema: argi hotzak nagusi, zuzendutakoak, erregulatu daitezkeenak eta kontsumo baxukoak.

- Altzariak: praktikoak eta egokitu daitezkeenak.

6. EUSKADIKO STANDAREN SEINALEAK ETA ERROTULAZIOA

Errotulazioa funtsezkoa da standa identifikatzeko:

- **Euskadiko standaren errotulazio orokorra:** bisitariak azkar lokalizatu behar gaitu.

Aurkeztutako proposamenean zehaztu eta definitu beharko da errotulu bakoitzean erabili beharreko tamaina, formatua eta non jarriko den.

6.1 – Euskadiko standaren errotulazio orokorra

6.1.1 - Azokarako errotulazioa. "Euskadi Basque Country" marka

- Standa argi eta garbi identifikatuta egon behar da, eta "**Euskadi Basque Country**" marka nagusiak agertu behar du. Agiri honetako II. ERANSKINEAN dago marka erabiltzeko eta konfiguratzeko eskuliburua, eta une oro hori aplikatu beharko da.

- Standa errazago ikusteko, "Euskadi Basque Country" marka dagokion pabilioko angelu guztietatik ikusi ahal izango da. **Azokan baimendutako gehieneko garaiera** izango du. *Rigging* bidez zintzilikatutako altuera erabiltzen ez bada, eraikuntzako panelen gainetik baimendutako gehieneko altuera duen sabaiarekiko proposamena aurkeztuko da.

- Altueran identifikatzeaz gain, proposamenak standaren gune osoaren identifikazioa ere izango du, eremu komunekin (beheko zatia); horretarako, marka hau eta **Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren logotipoa** izango ditu.

- Standaren leku ikusgarri batean, standaren jabea ere identifikatu beharko da, alegia, Euskadi Basque Countryren logotipoak elkarbizitza egin beharko du Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren logoarekin, eta baita HAZI, Neiker eta Elikakoekin.

6.2 – Informazio-puntuaren errotulazioa

- Gune honetan, "Euskadi Basque Country" markaren errotulazioa eta **Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren** logoa batera egongo dira. Biak jendeak ikusteko moduko tokian egongo dira.

6.3 – Jendeari irekitako gune komunen errotulazioa

- Standerako proposamenean **elementu lagungarriak** jar daitezke, hala nola argazki handiak, argiak, koadroak, olanak, sloganak… eta aurkeztu beharreko proposamenean sartuko dira guztiak.

7. ALDERDI TEKNIKOAK ETA FUNTZIONALAK

- Adjudikazioaren ondoren **aldaketa** txikiak egon daitezke, ezingo dira esanguratsuak izan, eta, ondorioz, ez dute gastua haziko; behar besteko aurrerapenarekin proposatu beharko dira. Aldaketa horiek standaren egokitzapentzat hartuko dira.

8. ENPRESA ADJUDIKAZIODUNAREN KONTURAKO ZERBITZUAK

8.1 - Garraioa, muntaketa, desmuntaketa eta beste zerbitzu batzuk

- Enpresa adjudikaziodunak **garraiatu, muntatu eta desmuntatu beharko du standa**. Lanok bere kontu izango dira. Adjudikaziodunak standa azokan horretarako adierazitako lekuan muntatu beharko du, eta, hala badagokio, beharrezkoak diren lanak egingo ditu hura egokitzeko.

- Enpresa adjudikazioduna arduratuko da standeko elementu guztiak **garraiatzeaz** jatorrizko lekutik helmugaraino, eta alderantziz.

- Enpresa adjudikaziodunak **Hazi Fundazioaren erakusketako dekorazio-elementuak eta salgaiak** ere garraiatuko ditu.

- Adjudikazioduna izango da garraiatzen dituen elementu guztien osotasunaren arduradun bakarra, salgaien kargu egiten den unetik aurreko paragrafoan jasotako gordailuraino. Adjudikaziodunak **adierazi beharko du lizitazioan garraioa egiteko duen pertsonen taldea, plantillakoa edo azpikontratatua**.

- Enpresa adjudikaziodunaren ardura izango da ekitaldia amaitu ondoren **Eusko Jaurlaritzaren eta Hazi Fundazioren soberako salgai lehorrak eta dekorazio- eta merchandising-elementuak biltzea eta garraiatzea** jatorrizko lekura. Bilketa azokan bertan egingo da, eta Hazi Fundazioak adierazitako lekuan, adjudikaziodunarekin koordinatuta.

- Adjudikazioduna arduratuko da **standa desmuntatzeaz**, zerbitzu horri dagozkion **zeregin eta kanon** guztiez eta standa behar bezala biltegiratzeaz.

- Adjudikaziodunaren kontura izango da **standeko elementuak bermatzea**, bai eta garraioa eta muntaketa-, desmuntaketa- eta deskarga-lanak ere.

- Garraioa, muntaketa, desmuntaketa eta zamalanak egiteko **lekualdatutako langileen garraio, ostatu eta, oro har, dieta guztien kostuak** ordainduko ditu.

8.2 – Proiektuaren koordinazio orokorra eta zuzendaritza

- Enpresa adjudikaziodunak **proiektuaren koordinazio orokorrean esperientzia duen pertsona** bat jarriko du proiektu honetarako; pertsona hori arduratuko da kontratua behar bezala gauzatzeko enpresa adjudikaziodunaren kontura diren eta agiri honetan jasota dauden alderdi guztiak egokitzeaz eta jarraipena egiteaz.

- Pertsona hori izango da HAZI Fundazioaren solaskidea, eta azokaren garapeneko **aurrerapenak etengabe jakinaraziko dizkio**.

- Enpresa adjudikaziodunak nahitaez bete beharko ditu Hazi Fundazioak adierazitako jarraibide, zuzenketa eta aldaketak, Hazi baita zuzendari fakultatiboa. Halaber zuzendaritza fakultatiboak muntaketako gainbegirale izendatutako pertsonek agindutakoa bete beharko du enpresa adjudikaziodunak, bai proiektuaren fasean bai erakusketa prestatzeko eta eraikitzeko fasean.

8.3 – Azokara lekualdatutako langileak

- Adjudikaziodunak standak amaituta behin betiko entrega egin arte **beharrezkoa den plantilla** izango du azokan, sor daitezkeen aldaketei erantzun ahal izateko, baldin eta muntaketa-arduradun nagusiak agintzen baditu.

8.4 – Azokako zerbitzuak kontratatzea

- ***Rigging* sistema** erabiliz gero, enpresa adjudikaziodunak egingo du kontratazioa, eta zerbitzua HAZIri fakturatuko dio.

- Enpresa adjudikaziodunak kontratatuko ditu enpresa erakusketariek behar dituzten eta Hazi Fundazioak adierazi dituen azokako zerbitzuak (**ura, elektrizitatea, garbiketa**); enpresa hori arduratuko da, halaber, behar bezala instalatzeaz eta funtzionamenduaz. Zerbitzuon kostua, ordea, Hazi Fundazioari fakturatuko zaio.

- **Lizitazioan sartu gabeko hozteko eta izozteko gailu eta beira-arasa gehigarrien** kontratazioa enpresa erakusketariaren eta dagokion hornitzailearen artean egingo da. Zerbitzuok enpresa erakusketariari fakturatuko zaizkio zuzenean. Enpresa adjudikaziodunari jakinaraziko zaizkio kontratatu diren gailu gehigarriak zein diren; izan ere, enpresa hori izango da gailu horiek funtzionatzeko behar diren entxufeak eta konexioak egitearen arduraduna. Horren kostua enpresa adjudikaziodunak ordainduko du.

- **Lanak amaitzea:** Standaren elementu guztiak amaituta eta instalatuta egon beharko dute kontratuaren xede den azoka irekitzen den egunaren bezperako 15:00ak baino lehen. Une horretan amaituta eta garbi egon beharko dute standaren gune itxi guztiek, biltegietako salgai guztiak behar bezala sartu eta jarri ahal izateko. Epe hori betetzen ez bada, zigorra karatularen **24. puntuan** dago jasota.

8.5.1 – Instalazio elektrikoa

- Instalazio guztiak indarrean dagoen **behe-tentsioko erregelamendu elektroteknikoaren** eta arau osagarrien arabera egingo dira.
- Instalazio osoak **aplika dakiokeen araudia** beteko du, eta enpresa adjudikaziodunak horretarako eskatzen den dokumentazioa aurkeztuko du.
- **Korronte-harguneak** Azokako Zuzendaritzak adierazitako puntuetatik egingo dira.
- **Argiteriaren** eta indarraren **banaketa-sare** osoa **kable-mahukarekin** egingo da, eta jasan beharreko kargetarako beharrezkoak diren sekzioak izango ditu. Ez da kable-loturarik onartuko, kaxa metalikoen babespeko borneen bitartez ez bada.
- **Kaxa elektrikoek** behar bezala **errotulatuta** egon beharko dute, behar izanez gero standeko arduradunek argiak piztu eta itzali ditzaten, soilik azokako ordutegian. Kaxa elektrikoa identifikatzeko, eguneko elektrizitatea eta 24 orduko hargunea bereiziko dira.
- Enpresa adjudikaziodunak **azokan instalatu behar den potentzia elektrikoa** jakinaraziko dio HAZI Fundazioari, azokan erabiliko diren gailu elektrikoak oinarri hartuta. Ez zaio eskaririk egingo azokari HAZI Fundazioaren oniritzia izan arte.
- Instalazio elektrikotik eratorritako **kostuak**
    - Adjudikaziodunaren kontura izango dira, eta aplika dakiokeen araudia bete beharko du; adjudikaziodunak horretarako eskatzen den dokumentazioa aurkeztuko du.
    - Azokaren antolakuntzak eskatzen badu **azokaren instalatzaile ofizialaren zerbitzuak** erabiltzeko, edo kanpoko enpresa batek instalazioa berrikusi eta legeztatzeko, adjudikaziodunaren kontura izango dira bai legeztatzeko behar den baimena bai kostua.
    - **Potentzia elektrikoaren hargune orokorren kontratazio-gastuak** Hazi Fundazioaren kontura izango dira, eta kontratazioaren kudeaketa adjudikaziodunaren kontura izango da.
    - **Instalazio elektriko okerragatik** salgaietan kalteak izanez gero, Hazi Fundazioak adjudikaziodunari kalte-galerak eskatzeko eskubidea izango du.

8.5.2 – Iturgintza-instalazioa

- Biltegian harraska bat jarriko da, eta **harraskak ur hotza eta hustubidea** izan beharko ditu.
- Konexioen hodiek **azokako araudiak adierazitako araudia** bete beharko dute.
- Iturgintzatik eratorritako **kostuak**
    - Uharte bakoitzeko **ur-hargune nagusitik** eratorritako gastuak HAZI Fundazioak ordainduko ditu.
    - Ez da **hargune gehigarririk** kontratatuko **Hazi Fundazioari aldez aurretik galdetu eta hark onartu gabe.**
    - **Ur-hargune nagusitik (harraska barne) egingo den banaketa eta konexioa** adjudikaziodunaren kontura izango da, eta dena lehiaketa honetarako eskainitako prezioan jasota egon beharko da.

8.5.3 – Garbiketa

- **Erakusketaren espazioa erabat garbi** eta erabilera-baldintza ezin hobeetan entregatuko da ekitaldia **ireki baino ordu eta erdi lehenago**.
- Enpresa adjudikaziodunak azokaren antolakuntzarekin kudeatu beharko du standaren garbiketa, eta hark zerbitzu hori eskaintzen ez badu, zuzenean kontratatu beharko du: enpresa adjudikazioduna arduratuko da azoka hasi aurreko **garbiketa-gastuez**.

9. MATERIALAK

- Standa eraikitzeko erabiltzen diren materialak, instalazio elektrikoak, iturgintzak, eta abarrek **Europar Batasunean indarrean dagoen araudia** bete behar dute, bai eta **azoka-esparru bakoitzeko araudi espezifikoa ere.**
- Materialak, aipatutako araudiak betetzeaz gainera, azokan erabiltzeko material praktikoak eta funtzionalak izan beharko dira, eta azokak iraun bitartean ondo funtzionatzeko eta mantentzeko bermea izango dute.
- Material guztiak **suaren aurkakoak** izango dira, eta une oro azoka bakoitzeko suteen kontrako segurtasun-espezifikotasunei erreparatu beharko diete.

- Azoka-erakundeak muntaketarako erabiltzen diren material guztiak **onartu eta homologatu izanaren ziurtagiriak** eskatuko dira.

10.- ZORUA

Informazio-gunea, bilera-gunea eta erakusketa-gunea egongo diren standaren zorua moketazkoa, pvc plastikozkoa edo antzeko material batekoa izango da.

11 - BILTEGIA

Biltegi txiki bat egongo da, honako hauekin:

- Hormako esekitokia.
- Korronte-hargunea entxufeekin.
- Hainbat apal, liburuxkak, merchandising-materiala, eta abar biltegiratzeko pisua eutsiko dutenak.
- Sarraila giltza independentearekin.
- Erratza eta zoru-garbigailua.
- Kutxa txiki bat baileta eta garbiketa-produktuekin.

12 – ERAGILEEN ARTEKO BILERAK EGITEKO EREMUA

Bilerak izateko gune irekia da. Mahaiak eta aulkiak aldi berean hainbat bilera izateko bereizita egongo dira.

14 – AGRITECH ETA/EDO FOODTECH ARLOAREKIN LOTUTAKO PROPOSAMENAK AURKEZTEKO ERAKUSKETA-GUNEA

ERAKUSKETA-GUNEA: Espazio irekia izango da, AGRITECH eta/edo FOODTECH arloko aurrerapenak azaldu ahal izateko.
Erakusketa-gune honetan, momentuz, honako gai hauei erantzuna eman beharko zaie:

- Energia fotovoltaikoari buruzko maketa bat jartzeko espazioa: 100x80 cm-ko neurrikoa eta metro bateko altuerakoa izango da, azalpen-kartel batekin lagunduta.

- PEGAren (Gastronomia eta Elikaduraren Plan Estrategikoa) 10 proiektuak aurkezteko gunea. Enpresari eskatzen zaio ekimen horiek aurkezteko proposamen bisual bat aurkeztea.
- IA erabiltzen duen ardogintza-proiektu bat erakusteko espazioa. Xehetasunak geroago emango dira.
- Una pantalla táctil para visibilizar contenido de un proyecto.

Erakusketa-guneek aldaketaren bat izan dezakete, standaren diseinuaren arabera.

15 – PANTALLA GRANDE

Erakustokiak pantaila handi bat izan beharko du antolatzaileak nahi dituen irudiak eta bideoak eman ahal izateko; elementu horrek, era berean, arreta-dei gisa balio beharko du.

I. ERANSKINA
II. ERANSKINA